

~~~~~  
***Inbertsio-plan  
berria***

/3. orrialdea



~~~~~  
***Etxeko  
konpostagailuen  
banaketa***

/2. orrialdea

~~~~~  
***Hiltegi zaharra  
birgaitzeko  
lanak***

/4. orrialdea

~~~~~  
***“Slow”  
sukaldaritzari  
buruzko  
jardunaldiak***

/5. orrialdea

~~~~~  
***Somorrostro,  
“etorkizun  
handiko” kluba***

/6. orrialdea

## Editoriala

### Hartutako konpromisoak betez

Legegintzaldiaren erdian gaude, eta, erreposoa eginez, konturatuko gara, denon lankidetzari eta ideiei esker, udal-erriarekiko hartutako konpromisoak betetzen ari garela.

Joan den ekainean, alderdi politiko gehienek akordioarekin, inbertsio berriak onartu ziren Muskizentzat, eta horrek zerbitzuen kalitatea hobetzen lagunduko digu. Kirol-instalazio berriak, inbertsioak auzoetan, hezkuntza eta gazteria, trebakuntza eta enplegua dira datozen hilabeteotan argia ikusiko duten proposamenetako batzuk.

**“Inbertsio berriak onartu dira Muskizentzat, eta horrek zerbitzuen kalitatea hobetzen lagunduko digu”**

Era berean, Muskizko herritarrek ingurumenarekiko duten ardura handitu egin da, eta, horri esker ere, Udalak ingurumen arloko kontzientziazio eta konpromiso handiagoak hartu ditu. Kudeaketa energetiko eraginkorragatiko ISO 50001 ziurtagiria politika horren ondorioa da, bai eta konposterako edukiontzien banaketa edota gure bide berdeetan zakarrontziak jartzea ere; esate baterako, Itsaslurreko pasealekuan edo Arena hondartzaraino doan ibai ondoko pasealekuan.

Era berean, lerro hauetatik, Muskizen etengabeko hobekuntzaren alde inplikaturik zaudeten pertsona eta elkarte guztiei eskerrak eman nahi dizkizuet, zuen laguntza ordainezinagatik.

Gure herriko jaiak amaituta, eta gustura parte hartuko zenutelakoan, udaz ahalik eta gehien gozatzea opa dizuet orain.

Besarkada bat.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



### Konposta egiteko ontziak

Muskizko Udalak, udalerrian ingurumena hobetzeko lanaren harira, etxean konposta egiteko 208 ontzi eskuratu zituen, eta herritarren artean banatu zituen dohainik ekainean. Ontzien zenbatekoa 12.909,31 eurokoa izan zen, eta guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin ordaindu zen. Udalak Muskizko Talleres Gallarreta enpresari esleitu zion zerbitzu hori, herrian enplegua sustatzeko politikaren barnean.

Etxeko konpostagailua desmuntagarria da, eta Thermolanez egina. Material horrek konpostajea eta ongarri organikoak sortzeko abiadura azkartzen du. 400 litroko edukiera du, eta gai da hondakin organikoak lorategirako konpost bikain bihurtzeko.

### Muskizek ISO 50001 ziurtagiria jaso du, energia eraginkortasunez kudeatzeagatik

Muskizko Udalak AENOR enpresak ematen duen ISO 50001 ziurtagiria jaso du. Ziurtagiri hori kanpo-auditoretza baten ondoren ematen da, eta Udalak kaleko argien alorrean egindako praktikek eta kudeaketa energetikoa hobetzeko lanek oniritzia dutela bermatzen du. Era berean, Udalak konpromisoa hartu du Giroarekin, 2018an Udalaren instalazioetan kontsumituko den energia elektrikoa Iberdrolaren ziurtatutako energia berdea izan dadin. ISO 50001 ziurtagiriaren helburu nagusia da atmosferara isuritako be-



### Hobekuntzak lorezaintza-zerbitzuan

Muskizko Udalak kontratu berria sinatu du lorezaintza-zerbitzurako, udalerrira hobetzeko eta garbiago egoteko helburuz. Kontratu berriak herrian lorezaintzan aritzen den enpresari inbertsio handi bat egitea eskatuko dio. Hobekuntzen artean hauek daude: makinak gehitzea; kutsadura akustikoa eta CO2 isurketak arintzen dituen sistema elektrikoa duten punta-puntako ibilgailuak, edota pasealeku eta gune handiagoen garbiketa. Gainera, zerbitzuaren esleipena duen enpresa indartu egingo da udaberrian, beste bi langile kontratatuta.

Lorezaintza-zerbitzuak izango dituen makina berriak hauek dira: furgoneta bat, kaxa irekia duen kamioi bat, sasiak garbitzeko zortzi makina, soropila mozteko traktore bat, sega-makina bat mulching efektuarekin (sistema horrek moztutako belarra xehatzen du, eta lurraren gaineko aldean geruza bat egiten du, materia organikoaren deskonposizioarekin osatutakoa), soropila moztekoak, heskaiak moztekoak, guraize elektrikoak eta ertzak egitekoak, beste material batzuen artean.





## Inbertsio-plana

**M**uskizko Udalak Udaltzaren egungo 2017-2018 ekitaldirako inbertsio-plan berria onartu du. Programa horren barnean dauden jardueretarako aurrekontua, guztira, 3.582.107 eurokoa da, eta hauek ditu ardatz: udal-kiroldegiaren azpiegiturak handitzea; Enplegua sustatzeko plana; auzoak berriztatzea eta birgaitzea, eta Udalaren instalazio batzuk birmoldatzea, esate baterako, Ikastolako kirol-gunea estaltzea.

Muskizko Udaltzak Inbertsio-plan bat diseinatu du, herritarren eskariei erantzuna emateko helburua duten ekintzei aurrekontu-partida bat emateko. Proposamen horiek, azken hauteskunde-prozesuan, alderdi politikoen programak egitean jaso dira. 3.582.107 euroko inbertsio-proposamena onartu da, eta, proposamen horretan, alderdien eta Muskizko herritarren hainbat ekimen eta iritzi bateratu dira.

Inbertsio-plan horretako diru-partidarik handiena udal-kiroldegia handitzeko lanetara bideratuta dago; guztira, 1.483.232 euroko aurrekontua, estalitako hiru padelpista egiteko, hiru tenis-pista estaltzeko, eta eremu zabaleko udako igerilekuak egiteko dagozkien azpiegitura osagarriekin.

Beste puntu garrantzitsu bat enplegua sustatzeko plana da, 500.000 euroko aurrekontua duena. Plan horretan, siderurgia integraleko langileen fundazioak proposatu du Muskizko Pobeña auzoan lehen sektorearen alorreko gizarteratze-enpresa bat sustatzea, 25 muskiztar inguru lanmerkatuan sartzeko helburuz. Dena dela, Udaltzaren onartutako inbertsio-planak baditu beste partida zehatz batzuk, kirol-azpiegiturak hobetzeko lurra erosteko, bide-seinaleak jartzeko, auzoak leheneratzeko edo berritzeko, edo hezkuntzaren eta kulturaren arloan egindako inbertsioak.

### Inbertsio-planeko partida nagusiak

|                                                    |                  |
|----------------------------------------------------|------------------|
| <b>Udal-kiroldegiaren azpiegiturak handitzea</b>   | <b>1.483.232</b> |
| <b>Enplegua sustatzeko plana</b>                   | <b>500.000</b>   |
| <b>Ikastolako kirol-gunea estaltzea</b>            | <b>200.000</b>   |
| <b>Chiquita bidea - Carrascal bidea birgaitzea</b> | <b>236.362</b>   |
| <b>Donibane pilotalekua egokitzea</b>              | <b>160.000</b>   |
| <b>Memerea auzoa berrurbanizatzea</b>              | <b>150.000</b>   |



## Azterketa geoteknikoa

Udalak azterketa geologiko-tekniko bat egin du, kiroldegia eraikita dagoen lurren eta inguruko lurren gaineko informazioa eskuratzeko, tenis-pistak estaltzeko, padelpistak eraikitzeke eta eremu zabaleko igerilekuak eraikitzeke lanetarako informazioa eskuratzeko aldera. Azterketa proiektua egin aurreko enkarguaren aurretik egin da, lurpea nolakoa den ikusteko eta ez arriskatzeko etorkizunean ager litezkeen arazoaren aurrean. Kostua, guztira, 14.300 eurokoa izan da.

Proiektua lurzoruan hainbat zundaketa eta zulo egitean zetzan, lurrazalaren azpian zein material dauden eta horiek zein ezaugarri geotekniko dituzten detektatzeko, laginak hartzeko, eta esku-hartzerako egoiak diren makinak zeintzuk diren zehazteko. Gainera, azterketa arkitektoniko bat ere egin da. Zimendatzeen eta euste-lanen tipologia eta dimentsioak zehazteak lagundu egingo du egiturek, hondeaketek eta betetzeek eragindako kargak edo lurra bultzatuta eusten diren kargak ezegonkortasunik edo egitura arriskuan jarriko duten mugimendurik eragin ez dezaten. Horrez gainera, urarekin lotuta, egon litezkeen zenbait arriskuren berri izaten ere lagunduko digu, esate baterako, ura sartzeko, higadura, arrastatzea. Lanek hiru astetik gora iraun zuten, eta bederatzi puntu aztertu ziren.



## ***Oiankas auzorako markesina***

Auzokoen eskaera ugari jaso eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailarekin zenbait kontsulta egin ondoren, Udalak lortu du Oiankas auzoan markesina bat izatea, Fuente Vieja hiribidean, San Julian auzorako noranzkoan.



## ***Herriko argien koadroak berriztatzea***

Udala egoera txarrean dauden herriko argien zazpi koadro berriztatzen ari da, egungo instalazioa udalerrriaren beharretara egokitzeko helburuz, eta, beraz, sarri gertatzen ziren itzalaldiak saihesteko. Aurrekontua, guztira, 60.122,21 eurokoa da.



## ***Espaloiak behertzea, Pobeña auzoan***

Udalak, guztira 5.203 euroko aurrekontuarekin, Pobeña auzoko espaloiak behertzeko lanak egin ditu, oinezkoak eta, bereziki, mugikortasun urriko pertsonak zebra-bideetan errazago pasatzeko xedez. Lanak auzotar bik egin dituzte.

## ***Kobaronetik El Hoyo auzora doan bidea urbanizatzea***

Udalak, guztira 40.000 euroko aurrekontuarekin, Kobarongo plazatik El Hoyo auzora doan bidea urbanizatzeko lanak hasi ditu. Lanak, nagusiki, hauek dira: bideko zolatzea hobetzea; euri-urak drainatzeko lotutako sistema bat jartzea, eta argiztatzea, eta kaltetutako guneen egoera hobetzea, lorezaintza-lanak eginez eta hiriko altzariak eta seinaleak instalatuz.

Gainera, jardute puntual gisa, aurreikusten da plazako iturriaren inguruan, Kobarongo erdigunean, bidea hasten den lekua ondoan, esku hartzea, eta hura berriztatzea eta egokitzea. Era horretan, gune horretan egin berri diren urbanizatzeko-lanak, elizarainokoak, osatuko dira, eta aipatutako bidekoak hasiko dira puntu horretatik aurrera.

Era berean, aurreikusten da egoteko hiru gune egitea, galtzadarrizko zoruarekin eta argiztaturik. Bertan, meatzaritzako historiari eta Santiago Bideari buruzko informazio-panelak jarriko dira.

Azkenik, hobekuntza gisa, bidean zehar jarduera fisiko aerobikoa egiteko gailuak ipiniko dira.



## ***Garai bateko Hiltegia birgaitzea, taberna-jatetxe bihurtzeko***

Muskizko Udalak 60.000 euro inguruko inbertsioa egin du garai bateko udal-hiltegiko azpiegiturak birgaitu eta modernizatzeko, eraikina taberna-jatetxe moduan berriz ere irekitzeko helburuz. Lanak bukatutakoan, Udalak lehiaketa publikora aterako du eraikinaren errentamendua, bertoko ekonomia bultzatzeko eta herrian turismoa sustatzeko. Interesa duten pertsonak agirian adierazitako beharrezko baldintzak bete beharko dituzte; horien artean daude, besteak beste, kaudimen ekonomikoa eta profesionala. Higiezinaren azalera 185 m<sup>2</sup> da, eta lizitazioko hileko gutxieneko errenta (zergarik gabe) 1.200 eurokoa izango da.

## “Slow” sukaldaritzari buruzko jardunaldi gastronomikoak, bertoko sukaldariekin

**M**uskizko Udaleko Ingurumen Sailak herri-mailako jardunaldi gastronomikoak antolatu ditu, herritarren errezeten bitartez merkataritza sustatzeko eta sukaldaritza tradizionala berreskuratzeko. Sukaldaritzajardunaldiak maiatzean hasi ziren, eta, fast food edo janari azkarrarekin kontrajarrita, slow sukaldaritza ezagutaraztea eta sustatzea dute helburu. Abangoardiako erantzuna da, bertoko sukaldearen aberastasunaz eta usainez jabetzeko.

Jardunaldi hauetan, edozein muskiztarrek edo bertan bizi den edozeinek har dezake parte, baita kuadrilla edo elkarteek ere, baldintza hauek betetzen badituzte: sukaldaritza tradizionaleko plater bat egitea; erosketa guztiak herriko dendetan egitea; platerak ekonomikoak eta errazak izatea, eta gutxienez 4 eta gehienez 10 pertsonarentzat izatea. Platerak leku publiko batean prestatu beharko dira, edozein herritarrek hara joateko aukera izan dezan. Horretarako, Ingurumen Sailak karpa bat,



sua eta platera prestatzeko bestelako tresnak jarriko ditu erabilgarri; era berean, produktuaren kostua bere gain hartuko du. Horrez gainera, Sailak platera grabatu eta gero publiko egiteko aukera emango die ekimenean parte hartu nahi duten, baina, adina edo beste edozein arrazoi tarteko, leku publikora joan ezin daitezkeinei.

### **Sukaldaritza-errezeten bilduma**

Jardunaldietan parte hartzen duten herritarrek errezeta eta hura publiko egiteko baimena eta grabazioa eman beharko dute, ondorengo urteetan prestatutako plater guztiak errezeta-bilduma bat egiteko.



## Zaborrontzi berriak Itsaslurren eta ibaiko ibilbidean

Udalak zaborrontziak jarriko ditu Itsaslurreko ibilbidean eta hondartzaraino heltzen den ibaiko ibilbidean. Zaborrontzi berriak granitozkoak izango dira, gogorak, oso astunak eta burdinazko tapa bat izango dute, gehiago iraun dezaten. Kaleak garbitzeko zerbitzuaren aurreko kontratuan ez bezala, kontratu berrian zaborrontzi horiek biltzeko eta garbitzeko lanak sartuta daude.

## Petronorrek lehen laguntzako postu mugikor aurreratu bat eman du dohaintzan

Petronorrek lehen laguntzako postu mugikor aurreratu bat eman dio dohaintzan Muskizko Herri Babeseko Udal Boluntariotza Taldeari, herrian egon daitezkeen larrialdietan laguntza osoa emateko helburuz. Iaz, Petronorrek hitzarmen bat sinatu zuen taldearekin. Hitzarmenaren xedea herritarren segurtasuna indartzeko lanean laguntzea zen; horretarako, talde horretako boluntarioei babesa eman zaie, hezkuntza-jarduerak eta materiala eskainita. Aurreikusitako ekintzetako bat zen postu mugikor bat ematea, zeinak oxigeno zentralizatua, andak eta larrialdi-egoeretan lan egiteko beharrezko elementuak baititu.



## Muskiz da Santiago Bidearen barnean jende gehien ibiltzen den herrietako bat

Datuak berriz ere Muskizen aldekoak dira. Izan ere, Muskiz da Kantauri Itsasoko ertzean gehien bisitatzen den herrietako bat; era berean, Santiago Bidean jende gehien ibiltzen den herrietako bat ere bada, eta Pobeñako aterpetxea erromesek gehien erabiltzen duten aterpetxeetako bat da. Aurreko urtean, aterpetxean 5.697 pertsonak igaro zuten gaua, hau da, 2015ean baino 300 erromes gehiagok. Egungo Udalbatzaren ustez, eraikin horrek duen onarpena, besteak beste, kokapen ezin hobea da, mendiaren eta hondartzaren artean baitago. Aterpetxean zaintzaile boluntarioak aritzen dira, era altruista batean, eta soilik erromesei eta euren beharrei jartzen diete arreta, Santiago Bidean gertatzen denari buruzko aholkuak eta informazioa emanaz. Borondatezko Zaintzaileen Elkarteak, ohiko legez, ez die ezer ere kobratzen instalazio horretan ostatu hartzen duten pertsonari. Bisitariak, Estatukoek zein atzerriarrek, dohaintzen bitartez eskertzen dute harrera.



## Elkarrizketa

### Juventud Deportiva Somorrostro, “etorkizun handiko” kluba

Sortu zenetik 75 urte joan diren honetan lortu du estreinakoz Juventud Deportiva Somorrostro klubak Hirugarren Mailara igotzea. Kluba apurka-apurka joan da hazten, gertutik zaindu du harrobia eta Bizkaiko kirolaren mapan kokatu du Muskiz.

**G/ Zenbat urtez prestatu ditu futbolariak Juventud Deportiva Somorrostro klubak?**

*E/ Klubak 75 urte beteko ditu, hainbat mailatan ibili gara, eta denboraldi batzuetan ez gara honetan bezain fin ibili, baina beti eutsi diogu hazteko eta helburuak lortzeko grinari, adibidez, Hirugarren Mailara igotzeko grinari eutsi diogu, eta lortu dugu.*

**G/ Hirugarren Mailara igo zarete aurren; baduzue pozteko arrazoirik.**

*E/ Orain dela hilabete batzuk lortu genuen hori mugarrria da, eta ez da erraza izan lor-*



*“Lanean gabiltza, Meatzaldean eta inguruetan erreferentziako kluba izateko*

*tzea. Azken bi urteotan egin dugun lanaren fruitua da.*

**G/ Juventud Deportiva Somorrostro klubean seniorren taldea dago, eta, gainera, arretaz zaintzen duzue harrobia. Gaur egun, zenbat haur daude taldearen oinarrian?**

*E/ 300 haur inguru ditugu: hainbat kategoriatan dabiltzan 19 taldetan daude banaturik. Gainera, talde misto bat daukagu. Gure klubak arazo bakarra dauka: azpiegitura aldetik ez gaude prest. Beraz, pauso handia eman behar dugu.*

**G/ Harrobiarekin egindako lana atsegin-garriagoa al da bestea baino?**

*E/ Jakina. Klubaren lehendakaria naiz, eta, horrez gainera, azpiko mailetako haurrekin aritzen naiz, eta niretzat horixe da gauzarik atsegingarriena egunerokoan. Haiekin lan*

*egitea, haiek prestatzea eta nola garatzen diren ikustea: horixe da gehien gustatzen zaidana. Nire pasioa da.*

**G/ Zergatik da hain zaila seniorren taldean herriko jokalaria aritzea?**

*E/ Azken bi urteotan lan handia egin dugu harrobiarekin, gauzak aldatu ditugu eta saiatzen ari gara jokalariei entrenatzaile on bat eta kirol-material egokia ematen, klubean hasten diren unetik bertatik, baina ez da langintza erraza. Gaur egun, haur bat nabarmentzen denean, ez da herriko taldean geratzen; aitzitik, kanpora joaten da. Hori aldatu nahi dugu.*

**G/ Zer helburu daukazue luzera begira?**

*E/ Gure helburua da Somorrostro erreferentziako kluba izatea Meatzaldean eta inguruetan, eta, gainera, gure oinarrietako futbolari zaindu nahi dugu, hazten jarraitzeko.*



### Burdinmendi Bide Berdea Lehenengo Megaduatloia

Muskizko Udala elkarlanean ari da lehenengo Burdinmendi Bide Berdea Megaduatloia antolatzen. Proba horrek meatzeen trenbide zaharra zeharkatuko du, Traslaviñatik (Artzentaletas) Pobeñara. Enkarterrialde Enkarterriko Landa Garapenerako Elkarteak ari da kirol-proba hau antolatzen, Artzentaletas, Galdames, Sopuerta, Abanto-Zierbena eta Muskizko udalekin elkarlanean. Kirol-ekitaldia 2017ko azaroaren 5ean, igandean, egingo da, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 16:00etara, eta 74 kilometro egin beharko dira (37 joan eta 37 etorri) bide berdean zehar, korrika eta bizikletaz.



### Itsasertzeko pasealekuaren inaugurazioa

Borja Liaño Muskizko alkateak, Iñigo de Loyola Ortuzar Zierbenako alkateak eta Javier De Andrés Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak inauguratu zuten itsasertzeko pasealeku berria. Oinezkoentzako pasealeku hau hondartzako aparkalekuaren ondoan hasten da, eta 3.400 metro koadroko gunea da, granito-agregakinezko harlauzez eta galtzada-harriz zolatua. Eredu guztitik 1.600 metro koadro -240 metro lineal eta 5,75 metro zabal inguru- itsasertzeko pasealekuari dagozkio, eta 1.800 hondartzako zerbitzuak hartzeko plazari. Gune hori, gainera, 26 argipuntuz, hiri-altzariz, lorategiz eta seinalez hornitu da.